




Negua:
Eguraldiaz
solasean



M8:
Hitzorduak
Urnietan



Lehiaketa:
'Aiurri' taldea,
Egunean behin



Martxa-kalejira Andoaingo Basterotik Goikoplazara, larunbat eguerdian / 8-9

AIURRI

Martxoak 7, 19:00,
Sarobe, 4 euro



**Emakume
langileen
afaria**

Martxoak 7,
21:30,
Oianume
jatetxea

Elkarretaratzea

Martxoak 8, 12:00, San Joan plaza

**"Iparragirre,
bihotzeko Jose
Mari"** antzerkia

Martxoak 8, 19:00,
Sarobe, 5 euro



Andoni Urbistondo URNIETA

Bizitzaren kasualitateak, Beterri eskualdean aspaldiko negurik epelena eta lehorrena bukatu eta egun pare batera etorri da bisitan Euskal Herrira ipar mendebaldeko lehen denboralea. Ernion elur maluta batzuk ikusten dira, Ibarrako Izaskun auzotik. Asteburuan Ernio ondo zurituko duela uste du Iker Ibarluzea, “Adarramendi ere bai, agian”. Poloko zurrumbiltoa eta Siberiako antizikloiaz mintzatu da luze, negu epelaren sorburuak. Baita aldaketa klimatikoaz ere: “Eguraldia gero eta epelagoa dela ukaezina da, datuak hor daude, baina aldaketa klimatikoa eman dela esatea gauza serioagoa da; momentuz ez da halakorik gertatu”, dio tinko.

Nor da Iker Ibarluzea?

Ibarrako gazte bat, 29 urtekoa, meteorologoa eta geografoa ikasketez, eta geografiako informazio sistemetan teknikoa (mapak elaboratzeko teknikak erakusten dituen ikasketak). Geografia Gasteizen ikasi nuen, meteorologiako Bartzelonan. Tolosaldeako atarian meteorologia iragarle nabil, eta laster komunikabide nazional batean hasiko naiz iragarle lanean, agian. Etorkizun ertainean oposaketak ditut buruan, Euskalmet-en, edo beste erakunderen batean, lana lortzeko, baina ez da erraza, gutxi egiten baitituzte. Egun, meteorologoa izateaz gain komunikatzaile ona ere izan behar duzu, eta horretan ere trebatzen saiatzen ari naiz, pixkanaka.

Meteorologoa izan zara txikitatik, edo zaletu egin zara?

Ez, txikitatik naizela esango nuke. Etxean, ETBko albistegia bukatzen zenean beti geratzen nintzen eguraldiko saioari begira bost urte nituenetik, iluntzetan Andoni Aizpururen jarraitzaile fidelenetakoa naiz. Mapak eta beste. Gero autodidakta izan naiz, asko irakurri dut. Nire ametsa beti izan da meteorologia izatea.

Zaletasunez meteorologia, eguraldia lizentziatu asko daude inguruan, baina tituluz gutxi.

Bai, ez baita erraza. Fisikan, eredu numerikoetan iaioa izan behar duzu, eta ikasketak ez dira samurrak.

Eguraldi jakitun asko daude Euskal Herrian. Igogailuan, okindegian, denok ematen dugu iritzia behintzat.



Iker Ibarluzea eguraldi aditua amaitzeaz den neguaz hizketan jardun du Andoni Urbistondo kazetariarekin. AIURRI

“Aurtengoa bezalako neguak izan dira; etorriko dira hotzagoak”

IKER IBARLUZEA METEOROLOGO ETA GEOGrafoA

Negu epel eta lehorren zergatiak azaldu ditu aditu den ibartarrak, eta aldaketa klimatikoa ukatu

Hala da, bai, eta harrigarria da. Jende gehienak gutxieneko ezagutza bat badaukala esango nuke, twitter sare sozialetan aditu asko irakurtzen da eguraldiaz mintzo.

Zergatik gertatzen da hori, gurean?

Eguraldi zaletu izateak lotuta darama natura gustuko izatea, mendizaletasuna... Nire ustez jende asko nahi gabe eguraldiaren prebisioa ikusten edo aztertzen hasten da, eta gero bide horretan jarraitzen du, bere jakintza aberastuz pixkanaka.

Eta Euskal Herrian eguraldiak interesa pizten duela, anitza delako. Esan nahi dut, hainbeste aldaketarik ez duen eskualde batean agian ez du halako erakargarritasunik sortuko, ezta?

Erakargarria baino preokupazioa esango nuke. Denoi eragiten digu, eta oso ezberdina da kilometro gutxiko tartean. Euskal Herrian bost klima ezberdin ditugu, ipar-hego eta ekialde-mendebalde, kilometro eremu txikian, eta horrek bere xarma dauka. Xarma, eta zailtasuna, meteorologoak izan eta iragarpenak egiten ditugunontzat. Nabardura ugari gertatzen dira Bizkaiko kosta edota Pirinioen artean, mendiak, orografia, itsasoak sortzen duen berogailu efektua... Askotan elurra zein altueratan botako duen galdetzen didate, baina ia ezinezkoa da zehaztasunez asmatzea. Toki batean prezipitazioa modu iraunkorrean egiten duenean aire hotza jaitsi egiten da eta elurra errazago egiten du beherago. Hori ezin da aurrez iragarri.

Twitterren bazabiltzate, bagabiltza, dozena pasa eguraldi zale, denboraleak nork iragarri besteak baino azkarrago. Zer moduz moldatzen zara sare sozial horretan?

Nirea ez da kontu korporatiboa, ez dut eguraldiaz bakarrik hitz egiten. Muturreko fenomenoak sumatzen ditudanean ematen dut iritzia, batez ere. Gero eta sare sozial konplexuagoa bilakatzeko ari da twitter, txio egilearen akatsa bilatzen duen jendea baitago, kargu hartzeko prest berehala. Kritika eraikitzaileak egitearen aldekoa naiz, baina mina egiteko joera duten kritikak gero eta ugariagoak dira, eta horrek zer pentsatua ematen dizu. Jarraitzaile kopuru handiena lortzeko halako lasterketa bat dagoela dirudi, eta ez dut grina hori partekatzen. Aldi berean, twitter-en ez bazaude, ez

zaude inon, ikusezina bilakatzen zara... Ni erratzen banaiz atzera egin eta nire errua onartzeko prest nago, baina sarean ego handiak daude, orojakile asko. Akatsik egiten ez duela uste duen jende asko, eurek direla egia bakarraren jabe, eta horiekin tentuz ibili behar da.

Zein iritzi duzu tenporen inguruan, meteorologia ez ofizialaz?

Aintzat hartzeko moduko zerbait da, iraganean ez zutelako egun ditugun bitartekoak, eta eguraldiaren joera sumatzen zuten. Garbi dago tenporek ez dutela oinarri edo azalpen zientifikorik, eta hori baliatuz kritika zorrotzak idazten dituzte hainbatek sarean. **Neguko tenporetan hego haizea izan zen nagusi.**

Bai, eta 10 egunetatik zortzitan hego haizea izan da nagusi.

Eguraldia %100 asmatzea ezinezkoa da, baita gaur egun ere.

Halaxe da. Jende askori entzuten zaio 'eguraldia iragartzea gauza erraza da', baina oso konplexua da. Atmosfera kaotikoa da eta etengabe aldatzen da. Telebistan edo sarean ikusten ditugun isobara edo koloreetako mapak ordenagailu bitartez egiten dira, fisikako arau batzuk erabiliz. Horien oinarria hainbat puntutako presio atmosferikoaren datuak dira. Zer gertatzen da? Goizeko parametroak eta arratskeoak ezberdinak izan daitezkeela, eta horrek goizean egindako prebisioren baliagarritasuna harrika botatzen du arratsalderako.

Zer fidagarritasun portzentaje eskaintzen du meteorologiak, egun?

Hiru egun, gehienez. Gehiago ez. Salbuespenak daude. Eredu garrantzitsuenek, europarrak, AE-Betakoak edo Kanadakoak, bat egiten badute 10 egun barru hotzaldia datorrela esanez, ba etorriko da. Intentsitate handiagoarekin edo apalagoarekin, baina etorriko da. Normalean bost egunetik aurrera zein eguraldi egingo duen zehaztea ezinezkoa da, non eta egoera oso egonkorra den, antizikloi sendo batekin. Orduan egin daiteke prebisio fidagarria.

Eskerrak inork ez duela eguraldia kontrolatzen asmatu, oraindik.

Lortuko dute. Gu ja ez gara hemen egongo, baina lortuko dute. Zirimoletan-eta ari dira, AEBetan, dagoeneko, esperimentuak egiten, hainbat gas erabiltzen, zein efektu sortzen dituen jakiteko: zurrumbilota indartu, ahuldu...



Ibarrako Izaskunen elkartu ziren Andoni Urbistondo eta Iker Ibarluzea. AIURRI

Negu berezietan berezia bukatu berri da. Alarma guztiak piztu ditu epel-epela izan delako, lehorra... Zein analisi egiten duzu?

1990an oso antzeko negua izan genuen. Iazkoa ere nahiko zozoa izan zen, eta 2017koa ere bai. Elurra apenas ikusi dugu azken lau neguetatik hiruretan. Uleritzeko moduko azalpen bat emate aldera. Jende asko Artikoko zurrumbilo edo bortizeaz mintzatzen da, Artikoko hotza gordetzen duen eremu handi bat, negu epelaren eragile bakar balitz bezala. Zurrumbilo horrek zer egingo duen jakitea ezinezkoa da, baina hausten denean, barruan duen hotza hegorago dauden eremuetaraino iristen da, Euskal Herriraino. Aurten ez da halakorik gertatu. Poloko zurrumbilota baino beste faktore garrantzitsuago bat aipatu nahi nuke. Jakina da negu garaian antizikloiak oso sendoak izaten direla, egunak eta egunak egon daitezkeela mugitu gabe. Bada antizikloi bat, neguan bakarrik sortzen dena, Siberiakoa. Haren eragina gureganaino iristen da batzuetan, Europa ipar edo erdian kokatzen denean. Hori gertatzen denean Atlantiko iparreko borraskek hegora, guregana joan beste erremediorik ez dute, Siberiako antizikloi hori borraskak baino indartsuagoa delako. Bukatu berri den neguan, ordea, ez da Siberiako antizikloi sendorik sortu. Horregatik egin du hain negu beroa Moskun, Helsinkin, non urtarrilean, eta historian lehen aldiz, tenperatura ez zen 0 gradutik jaitsi hilabete osoan. Siberiako antizikloi horren faltan, Azoreskoa izan da neguan Euskal Herrian

edo Europa hegoan kokatu dena. Zer eragin du horrek? Zirkulazio zonala, mendebaldeko haizea eta borraskak Eskozia eta Norvegian barrena Europa ekialdera, Turkiara eta Ekialde Erdira joatea. Han bai, han elurra eta izotza izan dute sarri. Euskal Herrian, aldiz, eguraldi lehorra eta tenperatura epelak. Euskal Herrian negu samurra izan dugu, baina galdetu Erresuma Batuko edo Irlandako herritarrei. Borraska eta haizete mordoa eduki dituzte.

Ez dut oroitzen elurrik gabeko negurik Adarramendi edo Ernion. Zuk?

Nik ere ez, 1990ekoa, agian. Arraroa da hiru hilabetetan Adarramendi ez zuritzea, 800 metro pasako mendia delako, eta neguan altuera horretan Euskal Herrian hotz handi samarra egiten delako.

Azken lau neguetatik hiru oso epelak izan dira. Joera horrek zerbait esaten dizu edo egoera puntual bat da?

Ez, klima ziklikoa da, hori frogatua dago, eta beti egon izan dira boladak. Aldaketa sakonez, aldaketa klimatikoaz hitz egiten hasteko 15-20 urteko epe bat beharko genuke, gutxienez, antzeko datuekin, klima aldatzen ari dela baieztatzeko. Beste gauza bat da eguraldia gero eta epelagoa dela ziurtatzea. Hori ezin da eztabaidatu, datuak argiak dira, bai neguan, baita udan ere. Hurrengo negua bukatu berri dena baino hobea izango da ziurrenik, zaila ez hala izatea. Baina esandakoa. Orain negu epeleko ziklo batean gaude, eta gauzak normal, hurrengo neguan edo urte batzuk barru beste ziklo bat etorriko da. 2005ean sei elur-

te bota zituen Kantauri Isurialdean, eta datu hori negu epel hau baino bereziagoa da.

Muturreko egoerak gero eta ohikoa-koak dira, han eta hemen.

Bai, eta euskaldunok, zentzu horretan, pribilegiatuak gara, gurean muturreko fenomenoek ez dutelako triskantza handirik sortzen. Euriteren bat, haizeteak, beroaldiak... Han eta hemen ikuste direnak gogoan, zortekoak gara. Gure ondorengoek, mende bat edo mende eta erdi pasa ondoren gehiago sufriruko dute aldaketa klimatikoa, ziurrenik. **Aldaketa klimatikoaz, edo muturreko datuak ematerakoan errazkeriaz hitz egiten da. Sarean sestraren bat edo beste izan duzu ez aspaldi.**

Bai, Antartidan historiako tenperaturarik beroena neurtu zela esan zuten askok, 20 gradu harriatu zirelako. Nik bota nuen ezinezkoa zela hori frogatzea, 100 urte atzera egin eta ez baitago daturik. Ezin dugu jakin orain bi mende, lau, hamar, zein tenperatura neurtu ziren Antartidan. Estazioa non dagoen aztertu ondoren, esango nuke datu puntual bat dela. Aldiz, ez da ezer esaten Artikoko izotz geruza hazten ari dela, eta aspaldiko handiena dela, han hotz handia pilatu delako. Batzuen eta besteen interesek talka egiten dutela esango nuke, aldaketa klimatikoaren kontu honetan, eta zorroztasun handiagoa eduki behar da datuak ematerakoan. Antartidako txoko horretan 20 gradu 20, 30 egunez segidan ematen badira, hor arduratzen hasi beharko genuke, baina ez da gertatu. Eztabaidan sartu nintzen eta sekulakoak irakurri behar izan nituen. Datu hori jarri zuenak jarraitzaile asko ditu, eta horietako askok zure kontra egiten dute sistematikoki, bere ezaguna babesteko. Ertzat hartu izan naute noizbait, eta argudiorik gabeko iritziek aspertu egiten zaituzte.

Telebistan eguraldiko saioak ikusi eta sekulako audientzia dute: bideoak, argazkiak, azalpen zehatzak... Ondo iruditzen zaizu, edo gehiegizkoa da?

Ni meteorologoa naiz, eta oso interesgarria egiten zait Andoni Aizpururen moduko komunikatzaile on batek 10-12 minutuko saio bat egitea eguraldiarekin, baina irudipena daukat herritarren %98ak ez duela eguraldi zaleok eduki dezakegun zaletasuna. Alegia, %98ak bihar zer eguraldi egingo duen jakin nahi

Bi aurpegiak, asteburuan

Larunbatean giro kaxkarra. Goizean euri-giroa izango dugu. Orduak aurrera egin ahala giroa lasaituko da, gauean aterit geratuz. Termometroak 10 C-tan joko du goia. Igandean giro lasaia. Hego-mendebaldeko haizeak tenperaturak nabarmen igoaraziko ditu, maximoak 13-15 C-tan geratuz. Zeruan goi-hodei dezente agertuko da. Azken orduetan hodeitza trinkotu eta euritara joko du.

du, azalpen askorik entzun gabe. Aire masa hotzak, epelak... ez dakit benetan interesa ba ote dagoen. Zenbatetan galdetzen dizute twitterren, 'kolore moreak zer esan nahi du, hotza?'. Ba telebistako saioekin antzera. Eta eguraldiaren saioak laburrak dira, baina elurra egiten duenean non bizi garen ahazten dela esango nuke. Egun Gasteizen elurra egiten du, eta dozenaka kamara eta kazetari agertzen dira momentuko informazioa ematen. Hori ez da notizia, notizia bilakatu dute.

Erakunde ofizialek eguraldi iragarpenetan zuhurtzia gehiegiz jokatzen dutela ere kritikatzeko da.

Bai, arrazoi osoz. Adibidez, nahiago da prebisio kontserbadorea egin elur mailarekin, egin dezakeena baino gorago esatea, 300 metrora esan, gorago egin, eta kritikak saihestu. Baina izan dira, pasadizoak, non 600 metrora iragarri elurra, eta Ibarra, edo Andoainen, 15 zentimetroko geruza pilatu, eta prebisorik aldatu ez. Egun, eguraldi iragarpenetan baliteke hitza gehitxo erabiltzen dela esango nuke, eta hitz hori ezin dela erabili uste dut, debekatuta egon behar luke. Bost egun barru esan liteke, baliteke, baina egun batetik besterako prebisioan ez. Gero bada kexurik, lainoak, eguzkiak eta euri arrastoak erakusten dituzten ikur, sinbolo asko erabiltzen direlako mapetan, 'horrela nik ere asmatuko nuke', diotenak... Arrazoi puntu bat badu.

Deialdi ezberdinak martxan

Inauterietako argazki-lehiaketan parte hartzeko azken egunak dira. Ez da indarrean dagoen deialdi bakarra

INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA

- Andoainen bizi eta lan egiten duten 14 urtetik gorakoek parte har dezakete.
- Gaia Andoaingo inauteriak dira, era librean.
- Lanak paperean edo digitalean aurkez daitezke.
- Lanak martxoaren 12an aurkeztu behar dira Basteron: 10:30-13:00 / 16:30-19:30.
- Emailaz aurkez daitezke: kultura@andoain.eus. Gehienez ere, 8 megako tamainakoa.
- Sari bakarra: 250 eurokoa.

HISTORIARI BURUZKO IKERKETARAKO LAGUNTZAK

- Deitzailea: Andoaingo Udala.
- Deialdia: Historia alorreko ikerketa eta Andoaingo herriaren historiari buruzko azterketak bultzatzea da.
- Proposamenak aurkezteko azken eguna: Martxoaren 31.
- Dirulaguntza: 2.500 euro.

- Aztergaia: 2020. urtean batez ere egin eta Andoaingo komunitatearen gorabehera historikoak ezagutzera edo bere iturri historikoak berreskuratzeko ikerketa proiektu original eta argitaragabeko guztiak.
- Ezinbestekoa: Edozein ikerketa-gaia jorratzean genero ikuspegia aintzakotzat hartzea.

SANTAKRUTZAK 2020 KARTEL LEHIAKETA

- Teknika libre da.
- Neurria: Din A-4 edo Din A-5.
- Ezinbestekoa "Santa Krutz jaia 20" esaldia azaltzea.
- Lanak aurkezteko: Ernaitza Liburudenda. Zumea kalea.
- Epea: Martxoak 23. Lanarekin batera kartazal batean egilearen datuak txertatu behar dira.
- 150 euroko sari bakarra.
- Lehiaketan parte hartzen dutenek ezinbestean onartuko dituzte antolatzaileen baldintzak.



LEHIAKETA

AIURRI ANDOAIN-URNIETA

'Aiurri' taldea osatu da Egunean Behin lehiaketa ezagunean

Egunean Behin lehiaketa aski ezaguna da, milaka euskaldun egunero jotzen ari baitira. Izena emanda daudenak 70.000 goratik dira. Ezezaguna zaionarentzat eskuko telefonoko aplikazio bat da, deskargatu egin behar dena. Egunero 10 galderari erantzutea, horixe da lehiaketaren muina. Jokoaren baitan talde ezberdinak sortu dira eta, berriki, Aiurriko erredakzio taldeak 'Aiurri' taldea osatu du. Eskualdeko komunitateari begira dago, harpidedun batzuren eskariz sortu dena.

Lehen saria, bi gosari bikoitz Arruti kafetegian
Hurrengo hiru asteetan sariak banatuko dira, 'Aiurri'ko



'Aiurri' taldea sortu eta lehen 24 ordutan 170 partaide batu ziren lehiaketara. AIURRI

taldeko kideen artean. Martxoak 9-15, martxoak 16-22 eta martxoak 23-29 asteetako partaideen artean bina gosari bikoitz banatuko dira.

Lehen gosari bikoitza asteko irabazlearentzat izango da. Eta beste gosari bikoitza aste osoan parte hartu dutenen artean zozketatuko da.



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbisondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocío Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ

ALIATUAK: NESTOR, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

2017 Bikain

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Telegram erabiltzailea al zara? "Aiurri Andoain" kanala bila ezazu, eta jarrai gaitzazu

Andoaingo albisteen jarraipena errazteko aukera.

ALBISTE BERRI ON, IRAKURLE!

www.aiurri.eus | [twitter](#) | [facebook](#) | [instagram](#) | [telegram](#)





Iazko elkarretaratzea San Juan plazan. AIURRI

Martxoaren 8arekin bat eginik, elkarretaratzea Urnietan

Urnietako Udalak bilkura isila deitu du San Juan plazan, eguerdiko hamabietan hasita

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak EUDEL-en proposamenarekin bat egin du. Besteak beste, zera adierazten da bertan: "Emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako

bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste".

Kultur jarduerak asteburuari begira

Zinema emanaldia eta musika-antzerki ikuskizuna Saroben, datozen egunetan

Erredakzioa URNIETA

Asteburuari begirako ekitaldi asko martxoaren 8ari lotuta daude. Besteak beste, "La mujer de la montaña" film sarituaren emanaldia larunbat arratsaldean. Eta, biharamunean, "Iparragirre, bihotzeko Joxe Mari" musika eta antzerki ikuskizuna. Biak ere Saroben izango dira. "Gizonak berdintasunera bidean" izeneko ikastaroa eskaini dute ere, baina bertan behera utzi da ez delako gutxienezko partaidetza lortu.

Agenda atalean hitzordu baikoitzaren informazioa eskura dago.



2008ko emakumeen afaria, Oianume jatetxean. AIURRI

Emakumeen afaria, hitzordu klasikoa Urnietan

Hitzorduekin bat eginik film emanaldia, afaria, antzezlanak eta elkarretaratzea antolatu ditu Udalak

Erredakzioa URNIETA

Larunbat gauekoa hitzordu klasikoetakoa da, martxoaren 8a iristen denean. Lagunarteko afaria egingo dute, Oianume jatetxean. Urteak dira, gainera, afariari eusten diotela. Lagun artean egoteko eta herrikideak

ezagutzeko aukera aproposa izaten da. Izen-ematea bezpera arte zabalik izango da. Interesa duenak izena emateko aukera dauka, martxoaren 6ra bitarte. Menuaren prezioa 31 eurokoa da, eta diru-sarrera Laboral Kutxan egin behar da.

Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!



'Gorabeherak'
websailarekin!

ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan





Zutik, Josefa Pereira, Mila Garralda, Lidia Egido, Mari Karmen Txapartegi eta Arantxa Garmendia. Eserita, ezker eskuin, Laura Martinez, Alba Rodriguez, Mertxe Belamendia eta Teresa Etxabarri. Aurkezpen ekitaldiaren bideo osoa ikusgai dago Aiurri.eus gunean, Bideoak ataldean. AIURRI

Pausoz pauso kalejirako protagonistak

Teresa Echavarri, Mila Garralda, Laura Martinez, Mari Karmen Txapartegi, Alba Rodriguez, Arantxa Garmendia, Lidia Egido, Mertxe Belamendia eta Josefa Pereira dira aurten nabarmenduko dituztenak. Larunbatean 12:00tan, Bastero plazatik abiatuta

Xabier Lasa ANDOAIN

Ohi bezala, Bastero Kulturgunean omenduko dituzten emakumeen aurkezpena egin zuten. Jone Larrañaga kazetariak gidatu zuen ekitaldia: “Emakumeen ahalduntzeaz mintzatzen diren historien jabe dira guztiak ere. Gaur eta hemen nabarmentzen baditugu ere, argi daukagu Andoaingo emakume guzti-guztiak ordezkatzeko dituztela”. Segidan, izendatutako emakumeen soslai:

Teresa Echavarri

Bizitzan aurrera egiteko erakutsi duen adorea azpimarragarria

da: “orain 27 urte minbizia detektatu zidaten, baina hura gainditzea lortu nuen. Orain hamar urte, berriz, azaleko minbizia. Egun, bi gaixotasunei aurre egitea beste erremediorik ez zait geratu: bularreko eta biriketako minbizi banari”. Gai-xo baten historial izugarri hori edonor lur jota uzteko modukoa izanagatik, baikortasunari hel-zen diola aitortu zuen.

Mila Garralda eta Laura Martinez

Emakumeen opor taldea antolatzea lortu zuten, herrian lehe-

nengo aldiz. Eugenio Arregi apaiz ekintzaileak idatzitako gutun bat eskuetan zutela, Andoaingo hainbat lantegietan (Laborde, Magnesitas Navarra, Olamia, Krafft, Intex, Sapa, Molada...) diru eske aritu ziren. Ekimen horri esker, emakume taldea Huescara joan zen. Martinezek aitortu zuenez, “orduan langile munduko ia inor ez zen oporretara joaten, eta gutxiago emakumeak; lana besterik ez zen egiten garai hartan! Lantegietako ordezkariak eta baita geure gurasoek harrituta hartu zuten gure ekimena”.

Mari Karmen Txapartegi

Aizarna auzoan (Zestoa) jaio zen; familian hamabosgarren senidea izanik, eta ama galdu zuenez, 13 urterekin neskame hasi zen lanean. 21 urte zituela Andoainera etorri zen bizitzera, Goiburuko Juan Lopez de Munain ezagutu eta gero. San Esteban erretegia irekitzea erabaki zuten. Eta 2014ko urrian itxi zuten, 41 urteren ostean. Txapartegik emozioz beterik gogoratu zituen urte haiek Basteron.

Alba Rodriguez

Nikaraguarra izatez, orain hamar urte heldu zen Euskal Herrira, bizimodua atera beharrak bultzatuta. Oso gogorra egiten zaie zaintza lanetan aritzeko honako bidea hartzen duten Hego Amerikako emakumeei, familia han utzi behar izaten dutelako. Rodriguez, Nieves emakume helduaren zaintzailea da. Oso pozik bizi dela aitortu zuen, “pertsona onberak eta goxoak topatu ditut Euskal Herrian, eta ez dakizue zenbat eskertzen den hori leku arrotz batera iristen zarenean”.

Arantxa Garmendia

Arrate pilotalekua 1977an erakitu zutenean, Arantxa Garmendia eta beste zenbait emakumek erabaki zuten eurek ere jokatu nahi zutela. Horrela, bi pilota talde osatu zituzten eta 90eko

hamarkadaren erdi aldera jokatzaren aritu ziren. Gizonen espazio publikoan tokia egin ahal izateko hastapenak nahiko gogorrak izan zirela aitortu zuen. Denborarekin, zegokien eskubidea lortu zuten.

Lidia Egido

Azelain ballet dantza eskolako arduraduna eta irakaslea izan da azken 20 urtetan. “Argi daukat balleta lagungarria dela gazteen hazkunde pertsonalean, harresiak hausten, sozializatzen... Ikasleei beti adierazi izan diet balleten konpainiak emakumeek bezainbat osatzen dutela gizon-nezkoek, baina ez dago erreza gauza. Asko dago egiteko oraindik feminizatuta dauden gizarteko zenbait espazio maskulinizatzen...”.

Mertxe Belamendia

Gizarte Zerbitzuetan atezaintzan aritzen da, Anbrosia Olabide egoitzan: “Urteak pasa ahala, gero eta sentiberago sentitzen naiz; herritar asko gaixotasunaren bat edo bestelako arazoak dauzkatelako hurbiltzen dira, eta gertutasuna erakusten saiatzen naiz. Gogoko dut lan hori, eta uste dut nabaritzen zaidala, asko eskertzen didalako jendeak”.

Josefa Pereira

Josefa Pereira eta Valeria Vi-guera pentsio duinen aldeko mugimenduko kideak dira. Bi urteren ostean Goikoplazan aldarriari eusten diotela adierazi zuen Pereirak: “Astelehenero udaletxe aurrean biltzen jarraituko dugu pentsio duinak lortu arte. Izan ere, Andoainen bada makina bat emakume eta gizon-nezko ez dena iristen hilabete-ko gutxieneko gastuak sikiera ordaindu ahal izatera. Kalean egindako borrokari esker, 2018an %1,7ko igoera lortu zen, eta baita ere emakume alargunen-tzat %52tik %60rako igoera. Aurten, jadanik, %0,9ko igoera lortu da. Eta segiko dugu borrokan, emakume guztiek pentsio bat edukitzeko eskubidea eduki dezaten, baita zaintzan ari direnek ere”.

**LARUNBATEAN
EGUERDIKO 12:00TAN
ABIATUKO DA
KALEJIRA,
BASTERON HASITA**



2013an, Martxoaren 8ko kalejiraren amaierako irudia, Goikoplazan. AIURRI

Ekitaldi sorta zabala

Martxoaren 8ari lotutako egitaraua indartsu abiatuko da, asteburu honetan. Egitarauari erreparatzea besterik ez dago: Pintxopotea, argazki-erakusketa, kalejira, antzerkia, manifestazioa eta bazkaria. Martxoan zehar hitzordu gehiago izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Zuenaren edota Andoaingo Asanblada feministaren ekitaldiak aurki daitezke Udal egitarauan.

Martxoak 5, osteguna

19:00 Pintxopote feminista, Basteron hasita.

Martxoak 6, ostirala

19:00 "Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak III" argazki-erakusketaren irekiera ekitaldia.
20:30 "Yo, la peor del mundo" antzerki musikala.

Martxoak 7, larunbata

12:00 Pausoz pauso ekimena, martxa-kalejira. Basteron hasi eta Goikoplazaraino.
14:00 Emakumeen bazkaria Oianumen.

Martxoak 8, igandea

12:00 Manifestazioa, Goikoplazatik hasita. Asanblada Feministak antolatuta.
14:00 Emakumeen bazkaria. Norberak berea eramanda.

Martxoak 10, asteartea

17:30 "Shirley Valentine" Zine-foruma Urigainen.

Martxoak 11, asteazkena

18:30 "Mujeres de Andoain: migración e historias de vida" mahai-ingurua. Andoaingo emakume migratzaileek hartuko dute parte.

Martxoak 13, ostirala

18:00 Amaia Armendariz eta Jone Perezek Txilera egindako bidaiaren diaporama Gazte Lokalean.

20:30 "Un grito de mujer" Flamenko ikuskizuna Basteron.

Martxoak 14, larunbata

17:00 Emakumeen pala topaketa Goikoplazan. Euriarekin, Arraten.

Martxoak 17 eta 24, asteartea

17:30-19:30 "Hobeto sentitzeko pausoak ematen" tailerra. Izen-ematea: 667 608 202.

Martxoak 18, asteazkena

09:45/11:15 "Futbolariak eta printzesak", ikasleentzat antzerkia Basteron.

Martxoak 23, astelehena

18:00 "La brecha orgásmica. De cómo el patriarcado nos sigue hasta la cama". Kafetertulia feminista.



Artistak Bilgunean bertan, Andoaingo EH Bilduko ordezkariekin batera. EHB

Emakumeen begirada artistikoa Bilguneako erakusketan

EH Bilduk herriko emakume ezberdinen artelanak ikusgai ipiniko ditu, Zumea kalean duen egoitzan

Erredakzioa ANDOAIN

'Martxoak 8 emakumeen enfoketik' izenburupean, argazki-erakusketa zabalik izango da Zumea kaleko Bilgunean. Herriko hainbat emakumeren argazki-lanak batu dituzte, emakume artisten lanak ezagutzera eman asmoz. Partaideak hauek dira: Ainara Audikana, Oihana Arri-zabalaga, Maddi Trutxuelo, Itziar Gutierrez, Aiora Arregi, Ainara Abrego, Ane Jalon, Elena Audikana eta Maider Arabaolaza. EH Bilduk, ohar bidez, bere egitasmoaren asmoa zein den zabaldu du: "Gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezkoa da printzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea. Beharrezkoa da emakumeak lehen lerrora ekarri eta jendartean aurrera egitea. Andoaingo EH Bildu horretan lanean ari da, kalean eta instituzioetan,

eta hala jarraituko du datozen urteetan ere. Herritar guztiak animatu nahi ditugu Martxoaren 8aren inguruan antolatu diren ekimenetan parte hartzera, eta baita Bilguneako erakusketa bisitatzerara ere".

Erakusketa zabalik, Zumea kaleko 5. zenbakian

Martxoak 5 osteguna: 18:30 Irekiera ekitaldia. Martxoak 6 ostirala: 18:00-20:00. Martxoak 7 larunbata: 10:30-12:00 / 18:00-20:00. Martxoak 8 igandea: 11:00-13:00 / 18:00-20:00.

OSTEGUN ILUNTZEAN EGINGO DUTE IREKIERA EKITALDIA. IGANDERA ARTE ZABALIK IZANGO DA

Kartel lehiaketa

Irene Pinto Olano Andoaingo gaztea da Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira Udalak antolatutako kartel lehiaketaren egilea. Maider Lainez Andoaingo Alkatearen eskutik jaso zuen saria, Pausoz Pauso aurkezpen ekitaldian bertan. Pintok sortutako irudia da, beraz, Martxoaren 8aren inguruan antolatu dituzten ekitaldietan ikusgai dagoena.



AIURRI

Solasaldia Basteron

Datorren martxoaren 11n interes handiko mahai-ingurua antolatu dute Gizarte Zerbitzuen lantsailetik. Migrazioari buruz hizlari arituko dira honako emakume andoaindarrak, 18:30ean hasita: Siham Mouflih (Maroko), Maria Panici (Errumania) —argazkian—, Claudia Peraza (Honduras), Zainab Owie (Nigeria) eta Marijo Grajeras (Euskal Herria). Moderatzailea: Silvia Carrizo.



AIURRI



EWKEko Galder Gonzalez, Aiurriko Jon Ander Ubeda eta TOKIKOMeko Alaitz Artolazabal, aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Argazki artxiboa denen bistara

TOKIKOM Wikiproiektua aurkeztu zen aurreko astean Udal Artxiboan, Euskal Wikilarien Kultur Elkartearekin eta TOKIKOMekin elkarlanean garatutakoa. 1990-1997 bitarteko 2.000 argazki digitalizatu, dokumentatu eta Wikimediara igo ditu Aiurrik

Erredakzioa ANDOAIN

Argazkigintza digitalaren atariko 90eko hamarkada da. Gaur hartako erredakzioetan argazkiak diapositiba, negatibo edo paperean gordeta daude. Andoainen eta Beterri-Aiztondon Larramendi Kultur Bazkunak Aiurri aldizkaria sortu zuen, eta lehen urte haietan argazkiak biltzeko bisioa izan zuen. Gerotik bildumatan gordeta egon dira, berriki digitalizatu diren arte. Urrats hori emateko funtsezkoa izan da TOKIKOM tokiko hedabideen bateragunearen eta Euskal Wikilarien Kultur Elkartearen artean sortu den lankidetzak. Tokikomen aspalditik jabetu ziren Aiurri eta beste hedabideetako argazki-artxi-boak oso esanguratsuak izan daitezkeela ondare historikoaren ikuspegitik. Euskal Wikilarien artetik, bestalde, 90eko hamar-

kadako argazki digitalen hutsunea narbarena zela jabetuta zeuden. Elkarren problematikak bat egiten zutela ikusita, EWKEk eta TOKIKOMek adostu zuten aukera bat ematea elkarri, egiaz-tatzeko komunikabideetan gordetako material hori benetan hain baliotsua den. Hala, EWKEk 'wikilari egoiliar' lanetan jarri zuen Aiurriko kide bat bertako artxiboa arakatu, digitalizatu, dokumentatu eta Wikimediara igotzeko.

Denbora tarte horretan Aiurrik 2.000 argazki inguru igo ditu Wikimediara, 1990 eta 1997 bitartekoak. Egindako lan horren onurak antzak dira: Alde batetik, Aiurrik orain digitalizatuta eta ondo ordenatuta dauka bere argazki artxibo historikoaren zati handi bat, aktualitateko informazioa lantzeko tresna gisa erabiltzeko moduan. Gainera,

artxibo hori publikoa eta esku-ragarria da erabili nahi duen ororentzat, Wikimediaren bitartez. Azkenik, Wikimedian edukiz osatu da iazko mendeko denbora tarte bat, orain arte hutsik zegoena.

Jon Ander Ubeda Aiurriko zuzendariak nabarmendu duenez, lana handia izan da, baina me-rezi izan du: "Gaur argitaratzen ditugun argazkiak ondare bilakatuko dira, etorkizunean. Denborekin iraganeko irudi horiek balio erantsia hartuko dute, historiari oso lotuta geratzen baitira. Andoaingo 97ko uholde historiko haiek, Andoaingo eta eskualdeko eguneroko bizimodua eta bizitza politikoa... ia bi mila argazki horiek zaindu beharreko ondare bilakatzen ari dira".

Wikimedian ikusgai daudene-tik, argazkiak andoaindarren artean bolo-bolo dabilta.

Ondare bilakatzen ari diren argazkiak



Bixente Zabala eta Bakartxo Arabaolaza. AIURRI

1994ko inauteriak Ospakizunen atalari jarraipen berezia egin zaio Aiurri, betidanik. Udako jaiak, ospakizunak..., hainbat argazki ikusgai daude Wikimediatalean. Argazkian ageri dena karroza baten gainean egindako dantza saioa da.



Juantxo Arregi kapitainak gidatuta, Axeri dantzariak kalejiran. AIURRI

1996ko Axeri-dantza Gaztetxoek ez dute jakingo, baina 1999a bitarte San Juan jaietan egiten den dantza saioan gizonezkoek bakarrik parte hartzen zuten. Gerora, hori aldatu egin zen. Wikimedian duela 24 urteko saioko hainbat argazki ikusgai daude.



Gurutze Gorriko kideek ontzia baliatu zuten, Ama Kandida etorbidean. AIURRI

1997ko Uholdeak Adinean gora doazenez gogoan izango dute Kaletxikin eta Ama Kandida etorbidean uholdeek izan zuten eragina. Kaleak erreka bilakatu ziren, metro luzeko altuera hartuz. Irudi ikusgarriak daude Wikimedian, Andoaingo atalean.



IRITZIA

GALDER GONZALEZ EUSKAL WIKILARIEN KULTUR ELKARTEA

Aiurriren altxorra, komunal digitalean

Toki komunikabideek altxor handi bat dute, gordeta. Euskal Wikilarien Kultura Elkartek eta Tokikomek elkarlanean Aiurri aldizkariak duen argazki artxiboa digitalizatu eta Wikimedia Commonsera igotzeko proiektu pilotua jarri dugu martxan, 1990eko hamarkadako 2.000 argazki baino gehiago komunalen jarrita.

1990eko hamarkada: zulo beltz digitala

Bazen garai bat, XX. mendearen hasieran, gutxi batzuek argazki kamera bat zutena. Argazkigintzaren aitzindari horiek milaka argazki egin zituzten, gaur egun ondare izugarria diren bildumak osatuz. Kasu batzuetan, domeinu publikoan daude argazki horiek, argazkilaria orain dela 70 urte baino gehiago hil zenean, adibidez (80 espainiar argazkilarientzat). Beste kasu batzuetan, instituzio publikoen eta argazkilarien familiaren arteko akordioei esker ondare hori digitalizatu eta publikoaren eskura jarri da. Gure-Gipuzkoa.eus elkarlan horren adibide bikaina da, baina ez da, tamalez, ohikoena.

Bada beste garai bat, 2000ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, mundu guztiak kamara digital bat izan duena, eta zer esanik ez 2010eko hamarkadan mugikorretako kamerak ugartu diren honetan. Gaur egun milaka argazki egiten dira, eta horietako batzuk komunal digitalean igotzen duten boluntarioak daude.

Baina bada zulo beltz bat: 1980ko hamarkadatik aurrera ohikoa izan zen kamera bat izatea etxean edo lantokian, argazkiak egin ziren baina ez dira digitalizatu; eta digitalizatu diren kasuetan copyrightdun argazkiak dira oraindik, ezin direnak Wikipedia bezalako proiektu askeetan erabili.

Gehitu diezaiogun beste zulo beltz bat: Euskal Herrian garai horretako argazki bilduma zuten bi egunkari itxi ziren (itxi zituzten) mende aldaketarekin batera. Artxiboen galera izugarria da.

Tokikom eta EWKE elkarlanean EWKEen bagenuen gogoa zulo beltz digital honi heltzeko, artxibategiak arakatu eta argazkiak askatzeko. Eta Tokikomekin batu gara hori egin ahal izateko.

Tokikom tokiko komunikabideen bateragunea da. 60 tokiko komunikabide biltzen ditu, guztiak euskaraz. 2019an eurekin bildu ginen, elkarlanean egin genitzakeen proiektuak aztertzeko asmoz, eta bilera horietan ikusi genuen argazki artxiboak digitalizatzea elkarlan posible eta desiragarri bat zela. Azken finean, artxibategi horiek digitalizatzea komunikabide askok amesten duten “etorkizuneko plan” horietako bat izaten da, eta elkarlan hau akuilu izan zitekeen horrelako zerbaiterako.

Tokikomen barruan dauden eragileen artean bat aukeratzea zen giltza, eta hor aurkitu genuen prest zegoen lehenengoa: Aiurri.



Anamari Martinez eta Martin Ugalde, Eduardo Chillida eta Pilar Belzuncerekin batera, Ugalde 1997an seme kuttun izendatu zutenean. AIURRI

Aiurriren altxorra

Aiurri aldizkaria 1994an sortu zen. Hamaboskari izan zen ondoren, eta astekaria zein webgunea ere bada gaur egun. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak bultzatua, bertan dute ere euskal aldizkarien artxibo erraldoi bat. Euren argazki artxiboa eredugarria da: albumetan bilduta, erlatiboki erraza zen horiek aldizkariaren zenbaki bakoitzeko albistearekin lotzea.

2019ko azaroan hasi ginen digitalizazio lanean. Lau ziren egin beharreko lanak:

- Argazki bakoitza ahalik eta kalitate eta bereizmen handienean digitalizatu, eta argazki artxiboko negatiboak begiratu errebelatu gabeko beste argazki interesgarriarik ba ote zen ikusteko.

- Argazki horri kontestua eman: zer da ikusten dena, non egina den, zein albisteri dagokion, nor agertzen den eta zein kategoriatan sartuko genukeen zehaztu (hasieran oso zehatz hasi ginen, amaieran zortzi kategoria handi egitea erabaki genuen).
 - Argazki guzti horiek Wikimediara Commonsara igo eta dago-kion moduan sailkatu. Hone-tarako Pattypan izeneko programa erabili genuen, kalkulu-orrialde bidez lan hau egiteko aukera ematen duena.
 - Aldizkari original bakoitza eskaneatu, PDF bilakatu eta Commonsara igotzeaz gain Wikite-kara igo, lotura bidez eskuragarri egon dadin.
- 2.000 argazki baino gehiago igo ditugu, urteka, gaika zein

udalerrika sailkatuta, 1990ean hasita eta 1997ra arte. Eta altxor bat aurkitu dugu.

Adibidez, Martin Ugalderen argazkiak, hainbat bertsolariren hastapenak, Leitzarango obrak, intsumisioaren mugimenduari buruz inoiz igotako lehen argazki libreak, BAP! taldearen argazki bat edo 1997an Andoainen izan ziren uholdeenak. Eta badirudi bakoitzak bere argazki kutunak ere badituela, sarean zabaldu diren modua ikusita.

Aurrera begira

Esperientzia ederra izan da, eta errepikatzea espero dugu. Alde batetik, herri komunikabideek ikusi dutelako euren artxiboa erakustekak ikusgarritasuna ematen dielako (bolo-bolo dabil gaia Andoainen egunotan, bertakoek esan digutenez). Bestetik, balio digulako artikulua asko hobetzeko, eta orain arte ezagutzen ez ziren gai batzuk erakusteko.

Prozesu luzea da, ordea. Alde batetik, artxiboa ondo ezagutzen duen norbait behar delako, argazkiak digitalizatzeaz gain bertan zer agertzen den esango duen norbait. Denbora hori garestia izaten da, eta finantziarioa beharrezkoa da, azkenean. Espero dugu hau ez izatea dodo bat, behin bakarrik ikusiko dugun hegazti bitxi bat. Badugu aukera altxor hau erakusteko, eta badirudi tokiko komunikabideen aldetik ere interesa dagoela. Jarraituko dugu, beraz, komunal digitala altxorrez betetzen.



Lemaburua

Mikel Alberdik bi urte daramatza Denda Berri Jubilatu eta Pentsiodunen elkarteko presidente gisa. Eskuak bete lan dabil 500 bazkide dituen elkarteko burua izanik, eta poza agertu du Udalak Denda Berri eraikuntza erabat berritzeko asmoa agertu duelako

Xabier Lasa URNIETA

Jubilatu aurreko zure ibibidea, kontako al diguzu?

Eibarren jaio arren, gaztaroa Pasai San Pedron egin nuen, eta 1980az geroztik Urnietan bizi naiz. Eskoriatzako TESA lantegiak Irunen zeukan egoitzan makina bat urte egin nituen langile gisa. Denetik egin nuen lantegian operatzaile gisa sartu nintzenetik, programazio sailean, esploatazio sailean... Eta azkenerako, lantegiko lankideekin giza harremanen arloa jorratzea egokitu zitzaidan. Halako batean, lantegiko zuzendaritzak ehun langile kalean uztea erabaki zuen. 54 urteko gizasemea kalean! Zorionez, aurrejubilazioari heltzeko parada eduki nuen, eta ondoren jubilatzeke garaia iritsi zitzaidan.

Zerk mugitu zintuen Denda Berri elkartean sartzera?

TESAn ari nintzela, Denda Berri elkarteko zuzendaritzakoek informatikan zer edo zer bazekiena behar izaten zuten, eta niri hotsegiten zidaten; lan-giro jatorra sumatzen nuen bertan, eta poliki-poliki, ohartzerako, elkarrearen dinamikan murgitzen hasi nintzen. Era horretan, orain zortz bat urte, zuzendaritzako kide izateko proposatu zidaten, eta "Zergatik ez, bada?" erantzun nien. Giza taldeak antolatzeke eta lan-taldean aritzeko trebezia pixka bat hartuta neukan iraganean lantegian, eta pentsatu nuen eskarmentu hori baliagarria izan zitekeela Urnietako jubilatu eta pentsiodunen mugimenduarentzat. Azken bi urteetan lehendakariaren ardurak hartzea egokitu zait.

Eta zein da balorazio pertsonala, elkartean orain arte egindako bi-dearekin?

Apaltasunez, esango nuke bul-txadatxo ematen saiatu naizela. Zenbaitek uste izaten dute Denda Berri bezalako elkarti bati ekintzak euria bezala erortzen zaizkiola, eta beraz, ez dagoela askorik egiteko. Barruan zaude-



Mikel Alberdi Denda Berriko lehendakaria da. AIURRI

nean, ordea, ondo baino hobeto ohartzen zara 500 bazkide dituen elkartea dela, eta dinamika bizia daukala, ia egunero gainean egoitea eskatzen dizuna. Ekintzak, ekitaldiak, ikastaroak, irteerak... ez dira beren gisa etortzen.

Urnietan bada jendea apenas da-kiena Denda Berri zer egiten duen...

Ziur baietz! Baina herrian gertatzen denaz interesa jartzen

duenak badaki azken urtetan egundoko bizitasuna hartu dela, Lupe Martiarena nekaezinari esker batik bat. Azken urtetan, aldatzen ari da bazkidearen profila, lanbidez, ikasketez, mentalitatez... formatuagoa da oraingoa, eta ondo daki zer nahi duen eta zer ez; elkarrekin antolatzen dituen ekitaldietatik zeintzuk dituen intereseko, nortzuk ez. Badago

balio handiko jendea tartean, lorea baino freskoago dabilena buruz eta osasunez, baina antolaketa lanetan sartzera tentatuz gero, erreparoa jarriko dizkizu; "utzidazu jubilazioarekin gozatzeko" erantzungo dizu, oso aktiboak sentitzen baitira. Nire itxaropena da urtetan aurrera joan ahala, errezagoa izango dela elkartera erakartzea jende hori... **Baina arratsaldeetako karta-jokalarien irudia oraindik ere mantentzen da elkartean...**

Ez dut ukatzen irudi horrekin identifikatzen ez denik. Baina gutxitzen ari da argazki hori. Kultur asteetan, konparazio batera, toka edo karten lehiaketetan, iraganean 50-60 pertsona ematen zuten izena. Orain erdira jeisten da kopurua. Are gehiago, seiko errearen joko mitikoa desagertu egin da, betiko jokalariek jada ez dira hurbiltzen mugikortasun arazoak direla eta, eta lekukoa hartuko dienik ez da sortu.

Nolanahi ere, zera aldarrikatu nahi nuke: adindu askorentzat egoitza oraindik ere "gertuko txokoa" izaten segitzen duela, eta hala nahi dugu izatea gainera. Etxean bakartasuna senti dezaketenez, leku ezin egokia baita. Giza berotasuna eskaintzen du egoitzak alde horretatik, eta zergatik ez, baita ere berogailuaren berotasuna, etxeko ekonomiak nahi adina ematen ez duenean... Azken batean, egoitzara etortzen denari ez zaio kostako, goiz ala berandu, batekin ez bada bestearekin hizketan jartzea. Funtzio horri eustea komeni da.

Bestalde, pena ematen dit mugikortasuna faltatzen inor etxe zulora kondenatuta egon behar izatea; egoitzara etorri ezintasun hori garraio zerbitzuren batekin-

edo nola konpondu pentsatu beharko genuke etorkizunean. **Kontaiguzu zeintzuk diren antolatzen dituzuen ekintzak, egunez egun.**

Egunero-egunero sentitzen da jende mugimendua egoitzako goiko solairuetan; sebillan eta zumba taldeekin ez bada, memoriari bi tailerrekin, bingoarekin... Urtean zehar, hainbat ekitaldiekin osatutako kultur astea antolatzen dugu. Ikastaroen arloan, euskara taldea osatzekotan gabiltza etorkizun hurbilean AE-Krekin lotu eta gero, bai baitago eskaera horretarako.

Bi eratako irteerak antolatzen ditugu, geure kasa nahiz bidaia agentzia batekin elkarlanean; lau-bost bat irteera lotuta daukagu jada, Arantzazu, Bizkaiko kostaldea, Milagro, Portugal... Larunbatetan, Urnietan inguruko ibilaldia antolatzeke joera dugu, ordu eta ordu terdikoa, Osasun Bideak-en barnean. Ospakizun berezietan, berri, geure ekitalditxoak egiten saiatzen gara; inauterietan, esate baterako, moztaroen lehiaketa dibertigarria egin berri dugu. Ez dut ezer deskubrituko esaten badut zer nolako arrakasta edukitzen duen gastronomiari lotutako edozerk... Inauteri aurrean antolatu genuen sagardotegia da horren adierazlea. Eta ez nuke hamabosteroko dantaldia ere ahaztu nahi.

Udalak eraikin osoa eraldatuko egingo duela iragarri du.

Bai, eta ikusminez gaude, guztion ongizaterako izango delako, eta elkarteari bere egitasmoak baldintza egokiagoetan garatzeko aukera emango diolako. Badirudi kanpoko obrak San Migeletarako amaitutzat emango dituztela, eta ondoren barruko obra guztiari helduko diotela. Tabernari dagokionez, bazkide eta bezeroen egonaldia eroso, beroa, gozoa... izateko prestatuko dute, eta sukalde txukuna erantsiko diote. Goiko solairuak, berri, eraberitu eta zabaldu egingo dituzte. Herriko hainbat elkarrekin tokia egitea erabaki dute bertan, eta pozgarria da hori, Urnietako hainbat sektore bertaratzea eragingo baitu horrek; eraikuntzak irabazi egingo du bizitasunean.

Obra guzti horiek irauten duten bitartean, Denda Berriko zuzendaritzaren ahalegina behar du izan obrek ez dezaten eten elkarrearen eguneroko dinamika. Eta bazkide eta erabiltzaileei pazientzia eskatu beharko zaie.



Gaur egungo Denda Berri elkartearen zuzendaritza: Lupe Martiarena, Juan Peñagarikano, Rosa Gonzalez, Ana Ojeda, Baldomero Murillo, Antonio Santana eta Mikel Alberdi. DENDABERRI



Hesidura ipini dute kiroldegiaren sarbidean. AIURRI

Kiroldegi berria eraikitzen hasteko lanei ekin diete

Sor daitezkeen eragozpenen aurrean, Udalak "pazientzia" izatea eskatu die herritarrei

Erredakzioa URNIETA

"Dagoeneko hasi dira kiroldegia eraberritzeko lanak. Obrak iraun duen bitartean eragozpenak sortuko dira", esanez oharra zabaldu du Udalak. Pazientzia eskatzen die herritarrei, "eta eragozpenak ahalik eta txikienak

izaten saiatzeko konpromisoa hartzen dugu" erantsi dute. Ezaguna denez, hainbat zerbitzu kiroldegiaren gaikaldeko modulu aurrefabrikatuetan eskaintzen ari dira. Helburua kirolzaleen eguneroko martxa ahalik eta gutxien oztopatzea da.

Batzar Nagusietan

Urnieta sozialisten bozeramaile Herme Gonzalez batzarkide izango da Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Denis Itxasok utzitako postua betetz. Kultura Batzordeko lehendakaria eta politika sozialeko kidea izango da. Sozialisten taldean sartzea "harro" egoteko modukoa dela adierazi du, "ardura handia" edukiko duela aitortzearekin batera.



PSE-EE

Merkataritza sustatzeko adostasun zabala

EH Bilduk proposatutako mozioarekin bat egin dute EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek

Erredakzioa URNIETA

Tokiko merkataritzaren egoera zaila da Beterri-Buruntzan, eta Urnietan bada beste elementu erantsia: Merkatariaiek elkarte bezala jarduteko duten ahulezia. Egoera aldarazteko ekimen ezberdinak martxan jarri nahi dira, bereziki Udalaz gaindiko erakundeen aldetik. Baina Urnietan ere ekin behar zitzaien, eta EH Bilduk abiatu duen ekimenarekin bat egin dute EAJ-PNVk eta PSE-EEK. Aurreko plenoan mozioa aho batez onartu zen. Hauxe, hartutako konpromisoa: "Udalak behar duen lehentasuna eman diezaiola komertzioari, beharrezko ekimenak abian jarri eta epe motzean egikaritzu". Martxoaren 9an merkatariekin elkartuko dira.

Udal ordezkarien adierazpenak

- **Ainara de Miguel, EH Bildu:** "Merkatariekin bilduta, premiazkoa ikusi genuen lanketa mahaia deitzeko".
- **Herme Gonzalez, PSE-EE:** "Oso gai serioa eta kezagarria da. Udalak merkatariei babesa adierazi behar die".
- **Mikel Pagola, EAJ-PNV:** "Merkatariek laguntza eskatu dute eta merkataritza mahaia eratzea ongi ikusten dugu".



Baratze parkeko ikuspegia, parean Urnietako herrigunearen ikuspegiarekin. UDALA

Baratze-parkearen erabilera zozketara aterako du Udalak

Baratze Parkeko partzeletako bat eskuratzeko aukera dago, martxoaren hamarra bitarte

Erredakzioa URNIETA

Udalak Baratze-parkeko lursail etako bat eskuratzeko aukera zabaldu du. Interesa duen pertsonak izena eman beharko du Bertan bulegoetan, martxoaren 10a baino lehen. Hautaketa zozketa bidez erabakiko da, Udalak ezarritako prozeduraren arabera.

Baratze-parkea herritaren artean elikadura eta ohitura osasuntsuak sustatzeko proiektua da, Kutxa Ekogunearekin batera sustatu zena. 2016an, Udalak oharrean gogora ekarri duenez, "49 partzela eskaini zituen, zein

nak, izena eman zuten pertsonen artean zozketa bidez banatu ziren. Proiektua abian jarritakoan Udalak azaldu zuen baratze ekologikoen lagapena gehieenez 4 urterako izango zela, eta behin epe hori beteta, berriro zozkatuko ditu".

LAU URTEKO LAGAPENA IGAROTA, UDALAK ERABILERA ESLEITZEKO ZOZKETA BERRIA EGINGO DU





Maider Usandizaga eta Debora Frutos lehiaketan parte hartuko duten Ford Focusean. MU/DF

"Gasolina dugu zainetan"

DEBORA FRUTOS ETA MAIDER USANDIZAGA AUTO GIDARIAK

MOTORRA RACVN lehiaketako Focus Kopan Debora Frutos andoaindarrak Maider Usandizaga oñatiarrarekin taldea osatuko du. Gogotsu daude, erronka berriaren aurrean

Mikel Arberas ANDOAIN

Debora Frutos eta Maider Usandizagak taldea osatuko dute abiatzear den RACVN lehiaketako Focus Kopan. Andoaindarraren lehen automobilgintza lehiaketa izango da, pilotu gisa. Oñatiarrak, berriz, 23 urterekin esperientzia asko du autoen munduan, lehenagotik ere gidari eta pilotu-lagun aritu baita. Lehia apirilaren 4an hasiko da, eta urriaren 18an amaitu. Lehia-

keta iritsi bitarte prestakuntza lanetan dabilta.

Nondik datorkizue autoekiko zale-tasuna?

Debora Frutos: Argazkilari bezala hasi nintzen lasterketetara joan. Egun, nire mutil-laguna ere automobilgintza munduan murgilduta dago eta gidaria da.

Maider Usandizaga: Ni duela bost urte hasi nintzen. Familian ere autoen oso zaleak gara, esaterako, lau lehengusu gabiltza

automobilgintzaren munduan. Familiatik datorren zerbait da. Egia esan, betidanik eduki dut gasolina zainetan.

Zer behar da rallyetan aritzeko?

M.U: Alde batetik prestakuntza fisikoa ezinbestekoa da, nik horrenbeste landu ez dudana alderdia; baina urteak aurrera joan ahala jakitun gara fisikoa lantzea garrantzitsua dela. Esaterako, gupilak aldatu behar direnean edota pisuzko zerbait jasotzean

indarra beharrezkoa da. Eta lesioak ekiditeko ezinbestekoa da.

Beste alde batetik, autoaren prestakuntza dago. Automobilak "puntuan" jartzeko lan handia egin behar dugu. Lasterketetan mekanikoki akats gutxi edukitzeko orduak sartu behar dira. **Zuek egiten dituzue autoen mantenu lanak?**

D.F: Oso oinarritzak bada, ikasten saiatzen gara eta ahal dugun moduan moldatzen gara. Siplea den zerbait aldatu behar bada, gai izan behar gara irtenbidea emateko.

Bestalde, zerbait konplexua izanez gero, esaterako, abiadura-kaxa orduan laguntza eskatzen dugu.

Egiten dituzuen entrenamenduak nolakoak izaten dira?

M.U: Bi entrenamendu mota dira. Batetik, geure kabuz egindakoak, geu kopilotu-pilotu gisa hobetzeko. Entrenatzeko edozein egunetan elkartzen gara eta autoarekin egiteko ibilbide bat aukeratzen dugu; hori bai, muga eta arau guztiak errespetatuz, guztia legearen barruan.

Bestetik, geure kasuan, lasterketa hasi baino bi ordu lehenago joaten gara ibilbidea ikustera eta oharrak hartzera. Azken unerarte ez baitakizu zein ibilbideetan lehiatuko zaren.

D.F: Entrenamenduak ezinbestekoak dira, baina elkarren artean konfiantza handia egon behar du. Batak bestearen laguntza behar du. Adibidez, nire kasuan, konfiantza handia ematen dit Maiderrek denbora asko daramalako pilotu-lagun bezala lasterketetan parte hartzen. Ez dela esperientzi gabeko kopilotu bat.

Zein ezaugarri ditu RACVN lasterketak?

D.F: Guztiek auto berdina eduki behar dute. Parte hartzeko bi edo lau ateko Ford Focus modeloa eduki behar da; estalkiak, esekidurak, motorra, ihes-hodia eta, oro har, auto guztiek ezaugarri berdinak eduki behar dituzte. Horrez gain, automobilak 100 zaldi soilik ditu.

Kopa ekonomikoa da, rallyen munduan hasi nahi dutenentzat. Lasterketa honetan ez dago bazterketarik, bertan parte hartzeko ez da diruduna izan behar, pasioa eduki behar da.

Labur esanda, "hastapenerako Kopa" ere deitzen zaio RACVN lehiaketari.

Babesle bila

Geure patriatik finantzatzeko dugu autoa eta behar dituen aldaketak. Oraingoz ez dugu akordioa itxi, baina esan genezake babesle bat lortu dugula. Diru bat emango digu, laguntza horrekin kopako zati bat ordaintzen saiatuko gara. Babesle bila gabiltza jarraitzen dugu, txapelketa benetan ona egin dezakegula pentsatzen baitugu. Kontakturako edota informazioa jasotzeko posta elektronikora idatzeko aukera dago: focus_rallygirls@hotmail.com.

Lasterketa gehiagotan parte hartu duzue?

M.U: Bai. Euskadi mailan ibili naiz. Rallysprint modalitatean parte hartu dut. Zehazki hiru urtez parte hartu dut, eta azkeneko bi urteetan, zenbait modalitateetan parte hartu dut; esaterako, rallysprint, rally eta lur lasterketetan, beraz, esperientzi apur bat dut. Gainera, pasa den urtean hiru lasterketa korritu nituen pilotu moduan. Bi lasterketa Ford Focusarekin, eta beste bat errepedean.

Zer nahiago duzue errepedean edo lur modalitatean lehiatu?

D.F: Ez dakit zer esan. Errepedean abiada handian ibili naiz, eta nire mutil-lagunarekin hiru lasterketetan parte hartu dut eta bi irabazi ditugu. Oroitzapen onak ditut errepedean.

M.U: Errepedean lehiatzeko mementoan tentsioa gehiago dagoela iruditzen zait. Abiada handiagoan gidatzen duzu, eta istripuak ere larriagoak izan hoi dira. Ezberdina da. Lurreko modalitatea dibertigarriagoa iruditzen zait.

Ez da oso ohikoa bi emakumek rally lasterketa batean pilotu eta pilotu-lagun bezala parte hartzea...

M.U: Ohikoa ez da, baina normalizatzeko ari dela iruditzen zaigu. Esaterako, duela bi urte *Rally Balcón de Bizkaia* lasterketan 17 emakumek parte hartu genuen, guztiak kopilotuak. Orduan pentsatzen duzu zerbait aldatzen dabilela.

Ezinbesteko bi puntu

ESKUBALOIA Urnieta Quel Abogados taldeak bi puntu baliotsu lortu zituen Txingudiren aurka (16-21). Partida ona jokatu ez zuten arren, bigarren postuan jarraitzeko balio izan die. Partida garrantzitsua izan da, hirugarren postuarekiko aldea lortzeko eta denboraldiko azken txanpara egoera onean ailegatzeko. Euskal Ligara igotzeko aukerak izaten jarraitzen dute.



UKE



ANDOAINGO

Txirrindulariak Elgoibarren

TXIRRINDULARITZA Xabat Alonso jubenilak Elgoibarko lasterketaren laburpena egin du: “Lasterketa hasieratik hainbat korte egon dira (...) Hamabi pertsonako eskapada bat sortu da eta ez dugu inor sartu, beste behin ere aukera egon da, baina ez dugu inor sartu, gaizki ulertuak egon baitira. Ondorioz, ihesaldiak denbora gehiago hartu du eta metaraino iritsi da”.



PIRINEOSCONNINOS.ES

Dokumentala Lekaion

ESKALADA Martxoaren 12an, ostegunarekin, “Eskalada jasagarria Gipuzkoan” dokumentalda eskainiko da Lekaion. Iaz aurkeztu zuten BBK Mendi Film Bizkaia jaialdian. Bide batez, “Gipuzkoako Eskalada Guneak. Berrekipamendua eta mantenimendua” egitasmoa azalduko da.



Mendizabal-Garai. UROLAKOSTAKOHITZA

Emakume Master Cup txapelketako finalaurrekoan

ESKUPILOTA Nora Mendizabal bikotea osatzen ari da Leire Garai gasteiztararekin

Mikel Arberas ANDOAIN Leire Garai gasteiztarrek eta Nora Mendizabal andoaindarrak landutako garaipena eskuratu zuten Ibone Salinas eta Andrea Capellanen aurkakako partidari, final laurdenetako partidari (18-13). Capellan erroixarrak partida bikaina jokatu zuen, baina ez zen nahikoa izan Garai-Mendizabal bikotea garaitzeko. Norak, bere aldetik, sendotasuna eta segurtasuna erakutsi zuen partidari, eta, beraz, aurkariek lan gehiago egin behar izan zuten tantoak eskuratzeko.

Lehen finalaurrekoa:
Olatz Arrizabalaga
Gentzane Aldai // Amaia Aldai
Arrate Bergara

Bigarren finalaurrekoa:
Leire Garai
Nora Mendizabal // Miren Larrarte
Olatz Ruiz de Larramendi

FINAL AURREKOAK BEASAINGO ANTZIZAR KIROLDEGIAN, IGANDEAN 12:00TAN HASITA

KARTELDEGIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
Euskalduna-Beti Gazte	0-2

NESKAK, 0. ERREGIONALA	
Urnieta-Zumaiako	1-2

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Urnieta- Lagun Onak / Lar, 7

ERREGIONAL PREFERENTE	
Urnieta-Kostkas	1-2

SAILKAPENA

1	Allerru	44 puntu
15	Urnieta	14 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Urnieta- Allerru / Lar, 7

ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA	
Irauli Bosteko-Euskalduna	2-4

SAILKAPENA

1	Euskalduna	9 puntu
2	Antigua Luberrri	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:00 Euskalduna- Intxurre / Lar, 7

PREFERENTE NESKAK, IGO. FAS

SAILKAPENA

1	Amaikak Bat	10 puntu
4	Euskalduna	9 puntu

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA	
Euskalduna-Mariño	0-0

SAILKAPENA

1	Real Union	46 puntu
2	Euskalduna	46 puntu

JUBENIL MAILA, KOPA	
Antigua Luberrri-Urnieta	6-0
Euskalduna-Orioko	5-1

SAILKAPENA (3. MULTZOA)

1	S.A.N.S.E	21 puntu
5	Urnieta	9 puntu

SAILKAPENA (4. MULTZOA)

1	Lengokoak	16 puntu
3	Euskalduna	16 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00 Euskalduna- Ostadar / Lar, 7

KADETEAK, IGOERA FASEA	
Euskalduna-S.A.N.S.E	1-1

SAILKAPENA

1	Lazkao	21 puntu
2	Euskalduna	18 puntu

KADETE, KOPA

Zarautz-Urnieta	6-1
Urnieta-Euskalduna	1-2

SAILKAPENA (5. MULTZOA)

1	Zarautz	15 puntu
3	Urnieta	11 puntu

SAILKAPENA (7. MULTZOA)

3	Urnieta	13 puntu
5	Euskalduna	9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

10:00 Urnieta- Billabona / Ig, 8

KADETE NESKAK

Urnieta-Ostadar	2-0
Intxaurdi-Euskalduna	0-1

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK	
Urnieta-Basauri	23-26

SAILKAPENA

1	Corazonistas	39 puntu
11	Urnieta	10 puntu

GIPUZKOA, SENIOR NESKAK

Txingudi-Urnieta	16-21
------------------	-------

SAILKAPENA

1	Egia	32 puntu
2	Urnieta	26 puntu

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK

Legazpi-Leizaran	25-26
------------------	-------

SAILKAPENA

1	Saieko	30 puntu
4	Leizaran	22 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Leizaran- Txingudi / Lar, 7

JUBENIL MUTILAK GI. TROFEOA

Ereintza-Urnieta	23-30
------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Urnieta- Egia / Ig, 8

JUBENIL NESKAK GI. TROFEOA

Leizaran-Ereintza	26-27
-------------------	-------

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK

Leizaran Horia-Hernani	23-35
------------------------	-------

GIPUZKOA, KADETE NESKAK

Leizaran Horia-Urola	11-5
Urnieta I.M-Eibar	21-19

SAILKAPENA

3	Leizaran Horia	8 puntu
6	Urnieta I.M	6 puntu

KADETE MUTILAK GI. TROFEOA

Urnieta-Leizaran	26-27
------------------	-------

SAILKAPENA

2	Leizaran	5 puntu
4	Urnieta	0 puntu

ARETO FUTBOLA

LIGA, 1. JARDUNALDIA

Idiazabal-Euskalduna	4-4
----------------------	-----

SAILKAPENA

1	Oiartzun	44 puntu
5	Euskalduna	30 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:45 Euskalduna- Eguzki / Lr, 7

SASKIBALOIA

SENIOR MAILA 3. MAILA

Zurruet-Astigarraga	77-49
---------------------	-------

JUNIOR MAILA

SAILKAPENA

1	Andraitz	7 puntu
11	Ganbara	3 puntu

KADETE MAILA

SAILKAPENA

1	Iragaz	4 puntu
5	Ganbara	2 puntu

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 5

ANDOAIN Erakusketa
Herriko artisten argazki-erakusketa Zumea kaleko 5. zenbakian. Informazio gehiago, 9. orrialdean.
18:30 Bilgunea. Irekiera ekitaldia.

ANDOAIN Kalejira
Pintxo-pote feminista. Informazio gehiago, 9. orrialdean.
19:00 Bastero plaza.

ANDOAIN Mintzalagunak
Euskaldunak behar dira, euskara ikasteko bidean trebatzaile izan daitezen. Informazioa udaletxean edota AEK euskaltegian.
Informazioa: Udaletxea, AEK.

OSTIRALA 6

ANDOAIN Erakusketa
Itsaso Mendiluzek zuzendutakoa, Andoaingo emakumei buruzkoa. Informazio gehiago, 9. orrialdean.
19:00 Bastero.

URNIETA Emakumeen afaria
Emakume Langilearen Nazioarteko eguneko afaria. Izena emateko epea zabalik.
Azken eguna: Martxoak 6.

LARUNBATA 7

ANDOAIN Kalejira
Pausoz pauso ekimena. Informazio gehiago, 9. orrialdean.
12:00 Bastero-Goikoplaza.

URNIETA Emakumeen afaria
Emakume Langilearen Nazioarteko eguneko afaria.
21:30, Oianume.

IGANDEA 8

ANDOAIN Manifestazioa
"Antolatu indarra, batu borroka feministara", Asanbladak antolatuta.
12:00 Goikoplaza.

URNIETA Elkarretaratzea
Martxoaren 8arekin bat eginik, Urrietako Udalak antolatuta.
12:00 San Juan plaza.



Joli Pascualena kantaria ikuskizuneko protagonistatkoa da. **AIURRI**

URNIETA Iparragirre, bihotzeko Jose Mari

Iparragirre kantaria jaio zela 200 urte betetzen direnean, Tanttaka teatroa eta Demode Quartet sormen-lana plazaratzeko asmoarekin elkartu dira, Ohar bidez zabaldu dutenez, "Iparragirreren bizitzan nabarmendu ziren emakumeak bilduko ditugu eta sormenaren protagonistak (ama, emaztea, Parisen ezagutu zuen sopranoa, Manuela, alabak...) izango dira. Emakume hauek Iparragirreren bizipenak ekarriko dituzte gogora eta euren begirada eskainiko digute". Taula gainean Joli Pascualena, Ainara Ortega eta Ane Gabarain aktore eta kantariak arituko dira. Musikari lanetan, berriz, Anjel Unzu.
Martxoak 8, igandea. 19:00, Sarobe. 5 euro. Sarrerak dagoeneko salgai.



ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
El escandalo (Bombshell)
Larunbata, 7. 19:30, 22:00.
Igandea, 8. 19:30.

Astelehena, 9. 19:30, 22:00.
Las aventuras del doctor Dolittle
Larunbata, 7. 17:00.
Igandea, 8. 17:00.
Fidelio (Opera)
Marxoak 17. 20:15.

URNIETA
SAROBÉ
La mujer de la montaña
Larunbata, 7. 19:00.
Asto erregeae
Igandea, 15. 17:00.

SINOPSISIA



La mujer de la montaña
Herrialdea: Islandia. **Urtea:** 2018. **Generoa:** Drama, thriller. **Zuzendaria:** Benedikt Erlingsson. **Aktoreak:** Halldóra Geirharðsdóttir, Jóhann Sigurðarson, Juan Camilo Roman... **Iraupena:** 101 min. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Gatazka ezberdinak batera

Halla 50 urteko kantu irakaslea da, eta tokiko aluminioaren industria kutsakorrari aurre egin nahi du. Egunerokoa egun batetik bestera aldatuko zaio gutuna jasotzen duenean. Adopzioan haurra hartzeko aukera suertatu zaio.

KONTZERTUA



Sarek antolatutako kontzertua

Reincidentes eta Dientes de Luna taldeek Andoaingo Gaztetxean joko dute martxoaren 14an, gaueko 22:30etik aurrera. Kontzertuen ostean, Bad Sound System taldeko Stepi Selektah-k reggae eta dancehall musika jarriko du. Sarrerak 8 euro balioko ditu. Sarrerak salgai daude Enaitzan (Andoain), Ilargin (Lasarte), Goizargin (Hernani) eta Iratzarren (Villabona). Reincidentes taldeak bere musika ibilbidearen 30. urteurrena ospatu zuen duela gutxi, eta horretarako DVD dokumental eta diska bikoitza aurkeztu zuen 'Canciones para no olvidar' izenpean

ZORION AGURRAK



URNIETA
Urko
Otsailaren 27an
7 urte bete dituzu.
Ondo ospatu eta
muhu handi bat
zure familiaren
partez.



ANDOAIN
Alia Fernandez
Martxoaren 8an
gure txikitin 8
urte beteko ditu.
Gogotsu gaude
zurekin ospatzeko.
Asko maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian.
Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean,
eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia
igotzen diren unetik, urtebetetze
egunera bitarte, ikusgai izango da
webgunean.

diseinua@aiurri.eus

Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.
Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora, Andoainera.
Whatsapp bidez:
619 163 537.

ODOL EMAILEAK

Martxoak 10, asteartea
18:30-20:30. ANDOAIN
Anbulatorioa.

Martxoak 17, asteartea
18:30-20:30. URNIETA
Anbulatorio zaharra.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 7 eta igandea 8
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 592 415 Andoain.

URNIETA

Larunbata 7 eta igandea 8
ETXEBARRIA: Andre kalea, 48.
'Cuevas'. 943 551 793 Hernani.

GAUEZ

URRUTIA-MARTIN: Etxeberria, 1.
Florida. 943 557 738 Hernani.

Prebentziorako gomendioak
Koronabirusaren aurrean

Osakidetza Osasun Aholkuaren telefono zenbakia
honakoa da: 900 20 30 50

Erredakzioa ANDOAIN

Webgunean eta sare sozial ezberdinetan, Aiurri bat egin du Osakidetzaaren ekimenarekin. Haren gomendioak elkarbanatu ditu, garrantzia handiko informazioa zela jakinda. Hauexek asteburuaz geroztik Osakidetza zabaltzen dituen hainbat aholku.

Zer da koronabirusa?

Koronabirusak animalietan zein gizakietan aurkitzen diren birus familia zabaltzen dira. Batzuek gizakia infektatu egiten dute, eta hainbat gaixotasun eragin.

Nola hedatzen da virusa?

Nahiz eta ez den zehazki ezagutzen, antzeko birusek eragindako beste infekzio batzuekiko analogiagatik, badirudi kutsatutako animaliekiko kontaktua bidez edo gaixoaren eztularekin eta doministikuarekin sortzen diren arnas jariakinekiko kontaktu estuaren bidez transmitituko litzatekeela. Sekrezio horiek beste pertsona bat kutsatuko lukete haren sudurra, begiak edo ahoa ukituz gero.

Zer egin dezaket babesteko?

- Garbitu eskuak sarritan.
- Eztul edo doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo zapi batekin. Bota zapia berehala eta garbitu eskuak alkoholez egindako eskuetako desinfektatzaile batekin edo ur eta xaboiarekin.
- Eztula edo doministiku egin eta sukarra duten pertsonetatik metro batera egon gutxienez.
- Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.

Zein arriskutsua da koronabirusa?

OMEk zabalduetako datuak direla eta, tamaina ertaineko tanten bidez transmititzen den gaixotasuna da. Horrek esan nahi du kutsatzea ukitu edo doministiku egiten duen pertsonarengandik metro edo metro eta erdira irits daitekeela.

Behin pertsona bat koronabirusak kutsatzen duenean, sintomak gripearean oso antzekoak izan ohi dira, hau da, eztula, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna edo artikulazioetako mina. Kutsatutako pertsonen heriotza-tasa % 2 da. Horrek esan nahi du birusa hartzen duten pertsona gehienak sendatu egiten direla.

Nola jakin kasu susmagarria naizen?

Gaur-gaurkoz, haxe da gomendioa: eztula, sukarra, eztarriko mina edo arnasa hartzeko zailtasuna, etxean geratu behar duzu eta Osasun Kontseilura deitu (900 20 30 50).

Nork izan dezake gaixotasunaren forma larri bat?

OMEren arabera, adinekoek eta aurretik gaixo daudenek (diabetesa eta kardiopatiak dituztenak, esaterako) arrisku handiagoa dute gaixotasunaren forma larria izateko.

Zein dira sintomak?

Sintoma hikoienak eztula, eztarriko mina, sukarra eta aire faltaren sententzia dira. Kasu gehienak sukarra duen arnas infekzio bati dagozkio. Larritasun handiagoko kasu batzuk egon daitezke.

Koronabirusa prebenitzeko GOMENDIOAK

- 1 SARRI GARBITU ESKUAK URAREKIN ETA XABOIAREKIN**
- 2 EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN AHOA ESTALI BESAUERAREKIN EDO MUKIZAPI BATEKIN**
- 3 ERABILI ETA BOTATZEKO MUKIZAPIAK ERABILI, ETA, ONDOREN, ZAKARRONTZIRA BOTA**
- 4 ARNAS-SINTOMAREN BAT IZANEZ GERO ETA ARRISKU-EREMU BATERA BIDAIAU BATUZU, ETXEAN GERATU ETA DEITU 900 20 30 50**

Other measures shown in icons:

- Mukiak kendu edo doministiku edo eztul egin ondoren
- Komunera joan ondoren
- Animaliekin kontaktua izan ondoren
- Elikagaiak jan edo manipulatu aurretik
- Gaixo dagoen norbait artatu aurretik eta ondoren
- Esku zikinak dituzun guztietan

Osakidetza

Euskadi, auzolana

ELISKO JAURLARITZA GOBERNO VASCO



Unai Ormaetxea gai-jartzailea eta harekin batera Unai Muñoa, Nerea Ibartzabal, Nerea Elustondo, Agin Laburu, Oihana Iguaran eta Aitor Mendiluze kantuan. AIURRI

Sahararen aldeko bertso hitzordua

Hurria-Sahara elkarteak, hutsik egin gabe, elkartasunezko bertso saioa antolatzen darrai. Basteroko ekitaldi aretoa jendez bete zen, ordu eta erdiko saioan bertso sorta ederra entzuteko. Ia emanaldi osoa ikusgai dago bideoz, Aiurri.eus gunean

Xabier Lasa ANDOAIN

Nerea Elustondo, Agin Laburu, Aitor Mendiluze, Nerea Ibartzabal, Oihana Iguaran eta Unai Muñoa bertsolariek saio polita osatu zuten igandean, Hurria-Sahara elkarteak antolatuta. Unai Ormaetxea gai jartzaile zutela, gogoetak eta umorea tartekatuz jardun zuten saio osoan zehar.

Makina bat gai eta egoera bizitu behar izan zituzten bertso-lariak: Sabino Aranek asmatutako hiztegia; koronabirusa sei urteko haurren ikuspuntutik; eskola publikoko irakaslea eta ikasturtearen erdian ikastetxera heldu den haur saharaurria; aurrean; musika zahararen eta egungoaren arteko eztabaida; gurasoen arteko sesioa... Basteroko aretoa ia betetzea lortu zen. Gozatu ederra hartu zuen ikuslegoak, ordu eta erdiko bertso saio emankorrari esker.

Elkarteak astean zehar antolatutako ekitaldi ezberdinen artean azkena izan zen.

LEHEN MUNDUKO ARAZOAK

Gaia: "Ondo dakigu mundu hau desorekatuta dagoela. Gutxi hainbeste, eta askok horren gutxi. Eta gu hor gaude, lehen mailako mundua deitzen dioten horretan, eta lehen munduko arazoekin: wifia ez dabilela, beroki aerosi berria modaz pasatu dela, oporretara nora joan ez dakigula. Kontaiguzue, zuek, ze lehen munduko arazoari egin behar izan diozuen aurre orain gutxi".

Unai Muñoa:

Ondo geratzen zaizkidan galtzak gutxitan daude dendetan. Xerra txikiena jartzen didate jatetxerik gehienetan. Eta sufritzen bizi naiz ere wifia ez dagoenetan. Baina lan gehien izaten ditut bikote harremanetan. Nerea Ibartzabal: Bakarrik dutxa hartutakoan ibiltzen gara ortozik. Eta lanera joateko baino ez gara esnatzen goizik.

Ta domeketan ze burukomin beti erdi ondoezik, eta ez gara gaixo egoten resaka delako baizik.

Nerea Elustondo:

Mixkin samarra sortu nintzen ni nahiz ta ez den nere kulpan, ta etorri naiz semaforotan denbora pila kantutan. Hala ta guzti gure kalderak zeozter raroa baduta Pentsa, gaur hona etorria naiz ur hotzakin dutzatuta. Agin Laburu: Alde batetik arropa eta aukeratzeko pereza. Gaur goizean ze pintxo jan nahi nun barra zegon aldebresa. Nerean gisa gaur Andoaina nere estres, nere presa. Bemeubia nun aparkatu ere ez dago errex!

Oihana Iguaran:

Ai aurreratu egin zaigunez udaberriaren ditxa, alerjiagatik muki artean tragatua daukat hitza.

Tabernan gero ze infusio ezin hautatu gabiltza. Ta okerrera pentsatzen degu ze injustua dan bizitza.

Aitor Mendiluze:

Drama existentzial denen ardura, tabernak hartu du ia. Ni ere joan naiz ta ebakitxo bat, motza, esne isuria. Ta gero kezka imposible bat, hain jarri naiz urduria: ze erabaki, azukre beltza edo azukre txuria.

MOZORROA

Gaia: Tolosako lagun bati behin zera entzun nion: izatez inauterietan garella benetan pertsonak garen bezalakoak, eta moztortu, berriz, beste urte guztian zehar egoten garella. Zure ustez, zenbaiteraino da egia hori.

Aitor Mendiluze:

Ze pentsamendu arraro nastu egin nau zeharo Dena buruan igaro, ta puntu honetan nago. Garena baino ez garen hura ez ote degun nahiago, beti hamalau intxaur baitaute geure etxetik harago. Eta izan nahi genukenetik zenbat eta urrunago nahi duen hartaz orduan eta moztortuago dago (bis).

Inauteri zaleenak gera orduan beste denak, moztortzen ez garenak moztortuta gaudenak. Aztertu egin behar litzuke

Ekitaldi sorta Andoainen

Bertso saioa Hurria-Saharak aste osoan zehar antolatu duen ekitaldi sortaren amaiera izan zen. Aurreko egunetan "Oporrak bakean" egitasmoa hobeto azaltzeko informazio panelak zabaldu zituzten Bastero Kulturgunean. Bide batez, udan Saharako haurren bat etxean hartzeko asmoa duten familiei informazioa eskaintzen aritu ziren.

bakoitzak bere barrenak, bere alde on bere alde txar argi eta ilunenak. Alper-alperrik izango ditu kanpoko moztorro denak benetan nora iris liteken ondo onartzen duenak (bis)

Hamaika konpleju bitxi geure baitara iritsi ai besteek zer iritzi guk begiak nola itxi. Beti pentsatzen ta kalkulatzeko ze irudi erakutsi Hainbeste izan nahi genuenak zergatik gera hain gutxi. Nik aholku bat daukat denontzat: burua ez hainbeste hautsi, zeraten gisa azaldu baina pixka bat gordean utzi (bis)